

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 391/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko apirilaren 23koa, ontziak ikuskatzeko eta aztertzeko ardura duten erakundeen erregelei eta arauai buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*REGLAMENTO (CE) N° 391/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 23 de abril de 2009 sobre reglas y normas comunes para las organizaciones de inspección y reconocimiento de buques*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 131 de 28/05/2009)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

391/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2009ko apirilaren 23koa,

ontziak ikuskatzeko eta aztertze arduraren erakundearen erregelari eta arauari buruzkoa

(bertsio bategina)

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak, eta bereziki, haren 80.
artikuluko 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute

(¹),

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute (²),

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote.
Adiskidetzeko Komiteak 2009ko otsailaren 3an onartutako testu
bateratua aztertu dute(³),

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Kontseiluaren 1994ko azaroaren 22ko 94/57/EE
Zuzentaraua(⁴), itsasontziak ikuskatu eta peritatzen jarduten
duten erakundeetarako eta itsas administrazioen dagozkien
jardueretarako arau eta estandar komunei buruzkoa,
hainbatetan aldatu da, funtsean aldatu ere. Beste aldaketa
batzuk ere sartu behar direnez, egokia da zuzentaraua
bategitea, argiagoa izan dadin.

(2) 94/57/EE Zuzentarauko xedapenen ezaugarriak ikusita,
egokia da xedapenak Erkidegoko bi egintza juridikotan
bategitea; hain zuzen ere, Zuzentarau batean eta
Erregelamendu batean.

(3) Ikuskatzeko eta aztertze arduraren erakundeek aukera eduki behar
dute zerbitzuak Erkidego osoan eskaintzeko eta elkarrekin
lehiatzeko, eta, aldi berean, segurtasun-maila eta
ingurumenaren babesaren maila berbera eman behar
dute. Hori dela eta, haien jarduerarako beharrezko diren arau
profesionalak modu uniformean ezarri eta aplikatu behar
dira Erkidego osoan.

(4) Helburu hori lortzeko, hartzen diren neurriek bat etorri
behar dute Nazioarteko Itsas Erakundeak (IMO) gai horren
inguruan egindako lanekin, edo lan horiek garatzeko eta
osatzearekin. Gainera, Estatu kideen eta Batzordearen
egitekoa da bultzatzea IMOk nazioarteko arau-kode bat egin
dezan onetsiriko erakundeentzat.

(5) Erakundeak onesteko gutxieneko irizpide batzuk ezarri
behar dira, itsasontzien segurtasuna hobetzeko eta haiek
eragindako kutsadura prebenitzeko.

(6) Horren ondorioz, 94/57/EE Zuzentaruaren ezarritako
gutxieneko irizpideak zorrotz behar dira. Estatu kideen
izenean jardun nahi duten erakundeek hasierako onespina
ematerakoan, eraginkortasun handiagorik frogatu daitezke lehen
aipatutako gutxieneko irizpideak betetzen direla, baldin eta
ebaluazio hori Batzordeak eta onespina eskatu duten estatu
kideek modu bateratuan egiten badute.

(7) Onspina emateko, erakunde horiek kalitateari eta
segurtasunari dagokionez gauzatzen dituzten jarduerak
soilik hartuko dira kontuan. Era berean, kontuan izan behar
da onspenaren hedadurak bat etorri behar duela uneoro
erakundearen benetako gaitasunarekin. Bestalde, onspenak
kontuan izan behar du onetsiriko erakundearen erregimen
juridikoak eta enpresa-egiturak askotarikoak izan
daitezkeela; baina ezin da alde batera utzi Erregelamendu
honetan ezarritako gutxieneko irizpideak modu bateratuan
aplikatu behar direla, eta Erkidegoko kontrolak
eraginkorrak izan behar dutela. Enpresa-egitura edozein
dela ere, onspina jasoko duten erakundeek mundu-mailan
eskaini behar dute zerbitzua, eta haien entitate juridikoek
erantzukizun solidarioa izan behar dute mundu osoan.

¹ C 318 EO, 2006.12.23koa, 195. or.

² C 229 EO, 2006.9.22, 38. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko apirilaren 25eko (C
74 EO, 2008.3.20, 632. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua,
2008ko ekainaren 6koa (C 190 E EO, 2008.7.29koa, 1. or.),
Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko irailaren 24koa
(Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea), Kontseiluaren
2009ko martxoaren 11ko Erabakia (Egunkari Ofizialean oraindik
ere argitaratu gabea).

⁴ L 319 EO, 1994.12.12koa, 20. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (8) Erregelamendu hau betetzeko neurriak onartu behar dira, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki¹.
- (9) Egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea, Erregelamendu hau alda dezan, nazioarteko hitzarmen, protokolo, kode eta alor horretako ebazpenetan etorkizunean egiten diren aldatetak bertan sartzeko; I. eranskinean xedatutako gutxieneko irizpideak eguneratzeko beharrezkoak diren aldatetak egiteko, arauen eta prozeduren, eta sailkatutako itsasontzien segurtasunari eta horiek eragiten duten kutsaduraren prebentzioari dagokionez onetsiriko erakundeek duten jardunaren eraginkortasuna neurtzeko. Neurri horiek orokorrak eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.
- (10) Oso garrantzitsua da onetsiriko erakunde batek bere betebeharrak betetzen ez baditu, egoera horri berehala, eraginkortasunez eta modu egokian erantzun ahal izatea. Helburu nagusia edozein akats zuzentzea da, segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxu guztiak hasieratik bertatik desagerrarazteko. Beraz, Batzordeari beharrezko eskumenak eman behar zaizkio onetsiriko erakundeek beharrezko diren jarduera prebentibo eta zuzentzaileak hartzeko exijitu ahal izateko, batetik, eta neurri hertsatzaile modura, aldiari aldiko zehapen eta zigorrak ezarri ahal izateko, bestetik. Eskumen horiek aplikatzean, Batzordeak oinarritzko eskubideak errespetatuko ditu eta bermatuko du erakundeak prozedura guztian zehar bere ikuspegia emateko aukera duela.
- (11) Erkidego-esparruko planteamenduari jarraiki, erakunde batek Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, lehen aipatutako neurriak ez badira eraginkorrak, edo erakundea, beste edozein arrazoi tarteko, segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxua bada, erakunde bati onespina kentzeko erabakia Erkidegoan hartu beharreko erabakia da. Hain zuzen ere, Batzordeak hartu behar du Komitearen prozedurari jarraiki.
- (12) Onetsiriko erakundeek Erregelamendu honetako arauak betetzen dituztela ikuskatzeko egin beharreko etengabeko jarraipena, eraginkorrago gertatzen da modu bateratuan eta zentralizatuan eginez gero. Hori dela eta, gomendagarria da, Erkidegoaren izenean, eginkizun hori Batzordearen esku uztea, onspena eskatzen duen estatu kidearekin elkarlanean.
- (13) Onetsiriko erakundeek jarduerak ikuskatzeko, ezinbestekoa da Batzordeko ikuskatzaileek baimena izatea itsasontzietara sartzeko —horien bandera edozein dela ere— eta horien dokumentazioa ikuskatu ahal izateko. Helburua izango da aztertzea onetsiriko erakundeek Erregelamendu honetan ezarritako gutxieneko irizpideak betetzen dituztela, haien klase bakoitzeko itsasontziei aplikagarriak zaizkienak.
- (14) Erakundeek beren barne-arauetan, prozesuetan eta kontrolatan izan ditzaketen gabeziak hautemateko eta zuzentzeko duten gaitasuna oso garrantzitsua da ikuskatzen eta egiaztatzen dituzten itsasontzien segurtasunerako. Gaitasun hori sendotzeko, kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko erakunde bat erabiliko da. Erakunde horrek independentea izan behar du, ez du inolako merkataritza-edo politika-interes menpe egon behar, eta ekintza-autonomia nahikoa izan behar du onetsiriko erakunde guztien hobekuntza iraunkorrerako proposamenak egiteko eta Batzordearekiko lankidetzara emankorra izan dadin lortzeko.
- (15) Onetsiriko erakundearen arauak eta prozedurak funtsezkoak dira segurtasuna handitzeko eta istripuak eta kutsadura saihesteko. Onetsiriko erakundeek erakundearen arauak eta prozedurak bateratzeko prozesuari ekin diote. Erkidegoko legediak prozesu hori bultzatu behar du, itsasoko segurtasunari eta Europako ontzizintzari onurak ekarriko baitizkio.
- (16) Merkataritzako ontzien diseinuari, eraikuntzari eta aldizkako ikuskapenei dagozkien arauen bateratzea abian da. Beraz, erakunde bakoitzak bere araudia izateko beharra edo horretarako frogatu duen gaitasuna bateratze-prozesuaren baitan ulertu behar ditugu, eta ez dute oztopo izan behar onetsiriko erakundeek jardueretarako, ezta onspena lortu nahi duten erakundeentzat ere.
- (17) Onetsiriko erakundeek nahitaez eguneratu behar dituzte beren arau teknikoak eta arau horiek modu koherentean betearazi behar dituzte, horrela lortuko baita segurtasun-arauak bateratzea eta Erkidegoan nazioarteko araudia modu uniformearen bitartez. Erakundearen arau teknikoak berdinak edo antzekoak badira, erakundeek elkarri aitortu behar dizkiete, hala badagokio, materialen, ekipamenduen eta osagaien ziurtagiriak, erreferentzia modura arau zorrotzenak eta zehatzenak hartuta.
- (18) Onetsiriko erakundeak, ziurtatzen dituen atalen erantzukizuna soilik izango du, printzipioz. Onetsiriko erakundearen eta fabrikatzaileen erantzukizuna hitzartutako akordioaren arabera izango da, edo kasuan kasu, egoera bakoitzean aplika daitekeen zuzenbidearen arabera. Gardentasuna, alderdi interesatuen arteko informazio-trukea, eta informazioa jendearen eskura egotea funtsezkoak direnez itsasoko ezbeharrei aurrera hartzeko, onetsiriko erakundeek beren erregistroetan sailkatutako itsasontzien egoeraren berri eman behar diete estatuko

¹ L 184 EO, 1999.7.17, 23koa. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

portuko agintaritzako kontrol-arduradunei, eta informazio hori edozeinen eskura jarri behar dute.

- (20) Konponketak egin beharra saihesteko asmoz itsasontziak klasez alda ez daitezzen, onetsiriko erakundeek klasez aldatzen diren itsasontzien egoerari buruzko informazio guztia eman behar diote elkarri, eta, behar denean, horretan inplika dadin eskatuko diote banderako estatuari.
- (21) Itsasoko sektoreko alderdi interesatuen jabetza intelektualeko eskubideen babesak —ontziolenak, ekipamenduen hornitzaileenak eta itsasontzien jabeenak barne— ez die kalterik egingo ohiko merkataritza-eragiketei, ez eta bi alderdiek kontratu bidez hitzartutako zerbitzuei ere.
- (22) Itsas Segurtasunerako Europako Agentziak (EMSA), Erregelamendu hau aplikatzen dela bermatzeko behar adina laguntza eskaini behar du. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1406/2002 (EE) Erregelamendua ⁽¹⁾ betez sortu zen agentzia.
- (23) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dutela Erregelamendu honen xedea – Erkidegoan jarduten duten itsasontzien ikuskapenaz, azterketaz eta ziurtapenaz arduratzen diren erakundeek hartu beharreko neurriak zehaztea— beren kasa behar bezala lortu, eta ekintzaren munta handia dela ikusita, Erkidegoan hobeto bete daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, Erregelamendu honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.
- (24) Ontziak ikuskatzeko eta aztertzeko ardura duten erakundeei dagokienez, Estatu kideek bete beharreko neurriak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko apirilaren 23ko 2009/15/EE Zuzentarauan ⁽²⁾ biltzen dira. Zuzentzarau hori Itsasontzien ikuskaritza eta azterketetan jarduten duten erakundeetarako eta itsas administrazioen dagozkien jardueretarako erregela eta arau erkideei buruzkoa da (bertsio bategina).

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Erregelamendu honek ezartzen du zer neurri jarraitu behar dioten ontzien ikuskapena, azterketa eta ziurtapena egiteko ardura duten

¹ L 208 EO, 2007.8.5, 1. or.

² Ikus Egunkari Ofizial honetako 47. orrialdea.

erakundeek, itsasoko segurtasunari eta itsas kutsaduraren prebentzioari buruzko nazioarteko hitzarmenak betetzeko, aldi berean zerbitzu-emateen askatasunaren helburua sustatzen dela. Horren barne daude nazioarteko hitzarmenen aplikazio-eremuaren baitako itsasontzien krosko, makina, instalazio elektriko eta kontrol-instalazioetarako segurtasun-betekizunak garatu eta ezartzea.

2. artikulua

Erregelamendu honi dagokionez, definizio hauek hartuko dira oinarri:

- a) «itsasontzia»: nazioarteko hitzarmenen aplikazio-eremuaren baitako itsasontzi oro;
- b) «nazioarteko hitzarmenak»: Itsasoan giza bizia segurtatzeko nazioarteko hitzarmena, 1974ko azaroaren 1ekoa (SOLAS 74), bere eranskineko XI-2 kapitulua salbu; Karga-marren nazioarteko hitzarmena, 1966ko apirilaren 5ekoa; Itsasontziek sortutako kutsadura prebenitzeko nazioarteko hitzarmena, 1973ko azaroaren 2koa (Marpol); haien protokoloak eta aldaketak, eta haiei dagozkien kodeak estatu kide guztietan derrigorrezkoak direnak, bertsio eguneratuan.
- c) «erakundea»: Entitate juridiko bat, haren filialak eta haren mendeko beste edozein entitate, elkarrekin edo beren kasa, Erregelamendu honen aplikazio-eremuan sartzen den jarduera egiten duena.
- d) «kontrola»: c) idatz-zatiaren ondorioetarako, eskubide, kontratu edo beste edozein bitarteko, izatezkoak edo zuzenbidezkoak, haiek bakarrik edo elkarrekin, entitate juridiko batengan eragin erabakigarria egiteko ahalmena ematen duena edo aukera ematen duena Erregelamendu honek araututako jarduerak egiteko.
- e) «onetsiriko erakundea»: Erregelamendu honi jarraiki onetsiriko erakundea;
- f) «baimena»: Estatu kide batek, onetsiriko erakunde bat akreditatzeko edo bere eskumena haren esku uzteko egiten duen egintza.
- g) «nahitaezko ziurtagiria»: Nazioarteko hitzarmenei jarraituz banderako estatu batek emandako edo haren izenean emandako ziurtagiria.
- h) «arauak eta prozedurak»: Onetsiriko erakunde batek ezartzen dituen betekizunak itsasontzien diseinurako, eraikuntzarako, ekipamendurako, mantentze-lanetarako eta kontrolerako.
- i) «sailkapen-ziurtagiria»: Onetsiriko erakunde batek ematen duen agiria, egiaztatzen duena itsasontzi bat erabilera edo zerbitzu jakin baterako gai dela, onetsitako erakunde horrek ezarritako eta argitaratutako araei eta prozedurei jarraiki.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- j) «establezimendua»: erakunde baten egoitza nagusia, administrazio nagusia edo jarduera nagusiko zentroa dagoen lekua.

3. artikulua

1. Oraindik aitortu gabe dagoen erakunde bati baimena eman nahi izanez gero, estatu kideek onespenez eskaera bat aurkeztu behar dute Batzordean. Eskaerarekin batera, informazio osoa eta egiaztagiriak aurkeztuko dituzte, adierazteko erakundeak I. eranskinean eta eskakizunean ezarritako gutxieneko irizpideak betetzen dituela, eta 8. artikuluko 4. paragrafoan eta 9., 10. eta 11. artikuluetan ezarritakoak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

2. Batzordeak, eskaria aurkeztu duten estatu kideekin batera, erakunde horien ebaluazioak egingo ditu, 1. paragrafoan aipatzen diren eskakizunak betetzen dituztela eta horiek betetzeko konpromisoa dutela egiaztatzeko.

3. 12. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozeduraren arabera, Batzordeak ez ditu onetsiko 1. paragrafoan aipatutako baldintzak betetzeari utzi dioten erakundeak, ez eta 14. artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxu onartezintzat jotzen dituenak ere.

4. artikulua

1. Batzordeak 12. artikuluko 3. paragrafoan jasota dagoen arautze-prozedurari jarraiki emango ditu onespenez.

2. Onspena 3. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen dituzten erakundeei soilik emango zaie.

3. Onspena dagokion erakunde juridikoari emango zaio; onetsirikoa erakunde osatzen duten erakunde juridiko guztien erakunde nagusiari. Aitorpen hori erakundeak bere zerbitzuak mundu guztian zehar eman ahal izatea bermatzen duten erakunde guztiei aplikatuko zaie.

4. Batzordeak, 12. artikuluko 3. paragrafoan jasota dagoen arautze-prozedurari jarraiki, edozein unetan mugatu ahal izango du erakundearen ziurtatze-ahalmena itsasontzi-mota batzuetara, neurri edo erabilera jakin bat duten itsasontzietara, edo ezaugarri horien konbinazio batera. Horretarako, erakunde horren gaitasuna eta eskarmentua hartuko ditu kontuan hartuta. Hori gertatuz gero, Batzordeak muga horren zergatiak azaldu beharko ditu, bai eta erakundeak zer baldintza bete behar dituen muga kentzeko edo muga zabaltzeko. Muga horiek edozein unetan berrikusi daitezke.

5. Batzordeak aldi-aldi egin eta eguneratuko du artikulua honi jarraiki onetsirikoa erakundearen zerrenda. Zerrenda hori *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* emango da argitaratu.

5. artikulua

Batzordeak irizten badu erakunde batek I. eranskinean ezarritako gutxieneko irizpideak betetzeari utzi diola, Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak betetzeari utzi diola edo, segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxu onartezina izan ez arren, segurtasunerako eta kutsaduraren prebentziorako gauzatzen dituen jarduerak okerrera egin dituela, onetsirikoa erakundeari

errekerimendua egingo dio, zehaztutako epean, dagokion prebentzio- eta zuzentze-ekintzak egin ditzan, bere betebeharrak eta ezarritako gutxieneko irizpideak gutziz betetzeko, eta, bereziki, segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxuak gutziz desagerrarazteko, edo era batera edo bestera, jarduerak okerrera egin izanaren arrazoiei aurre egiteko.

Segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxua berehalakoa bada, prebentzio- eta zuzentze-ekintzen baitan babeserako behin-behineko neurriak ere proposa daitezke.

Hala ere, neurri horien berehalako aplikazioari uko egin gabe, Batzordeak zer neurri hartzea pentsatzen duen alde zuzenetik jakinaraziko die dagokion erakunde onetsiari baimena eman dioten estatu kideei.

6. artikulua

1. 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki har ditzakeen neurriez gain, 12. artikuluko 2. paragrafoan jasota dagoen kontsulta-prozedurari jarraiki, Batzordeak onetsirikoa erakunde bati zehapenak ezartzeko eskumena izango du:

a) — I. eranskinean ezarritako gutxieneko irizpideak, edo 8. artikuluko 4. paragrafoa eta 9., 10., eta 11. artikuluetako betebeharrak behin eta berriz betetzen ez baditu, edo ez-betetze hori larria bada, edo

— bere egiturari, sisteman, prozeduratan edo barne-kontrolatan dituzten gabezien ondorioz, erakundearen jarduerak okerrera egiten badute, edo

b) Erakundeak, 8. artikuluko 1. paragrafoa bete egindako ebaluaziorako, Batzordeari informazio okerra, osatugabea edo engainagarria eman badio nahita, edo ebaluazio hori edonola oztopatu badu.

2. 1. paragrafoan ezarritakoari kalte egin gabe, onetsirikoa erakunde batek Batzordeak galdatutako prebentzio- eta zuzentze-ekintzak abian jartzen ez baditu edo inolako arrazoirik gabe horien aplikazioa atzeratzen badu, Batzordeak aukera izango du onetsirikoa erakundeari aldi-aldi zehapenak ezartzeko, neurri guztiak aplikatu arte.

3. 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako aldi-aldi zehapenak eta zigorrak, disuasiozkoak eta proportzionatuak izango dira, kasuaren larritasunaren eta onetsirikoa erakundearen gaitasun ekonomikoa kontuan hartuz. Horrez gain, kontuan izango da zer neurritan jarri den arriskuan ingurumenaren segurtasuna eta babesa. Zehapen eta zigor horiek onetsirikoa erakundeei eta estatu kideei beren oharrak egiteko aukera eman ondoren ezarriko dira beti.

Ezarritako aldi-aldi zehapenen eta zigorren kopurua, ez da izango onetsirikoa erakundeak Erregelamendu honen aplikazio-

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eremuko jardueretan azken hiru urteetan izandako negozio-bolumenaren %5 baino handiagoa.

4. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak jurisdikzioko eskumen osoa izango du Batzordeak aldian aldiko zehapen edo zigorren bat jartzeko hartutako erabakiak berraztertzeko. Zehapena edo zigorra bertan behera uzteko, gutxitzeko edo handitzeko eskumena izango du.

7. artikulua

1. Batzordeak onespena kenduko die erakunde hauei:

- a) I. eranskinean ezarritako gutxieneko irizpideak edo Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak behin eta berriro eta larriki ez betetzeagatik egoera ingurumenerako mehatxu onartezin bihurtzea eragiten duten erakundeei.
- b) segurtasunerako eta kutsaduraren prebentziorako neurriak behin eta berriro eta larriki ez betetzeagatik egoera segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxu onartezin bihurtzea eragiten duten erakundeei.
- c) Batzordeak egiten duen ebaluazioa behin eta berriz galarazi edo oztopatzen duten erakundeei.
- d) 6. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako aldian aldiko zehapen eta zigorrak ordaintzen ez dituzten erakundeei.
- e) 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki ezarritako zehapenen finantza-estaldura lortu edo kopurua itzultzea nahi duten erakundeei.

2. 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatiei dagokienez, Batzordeak, eskura duen informazioan oinarrituta hartuko du bere erabakia, kontuan hartuz:

- a) 8. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa betez, onetsiriko erakundeari Batzordeak berak egindako ebaluazioaren emaitzak;
- b) Estatu kideek 2009/15/EE Zuzentarauaren 10. artikulua betez aurkeztutako txostenak;
- c) onetsiriko erakundeek sailkatutako itsasontziek izan dituzten istripuen azterketak;
- d) 6. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako gabezien errepikapena;
- e) onetsiriko erakundeko sailkatutako itsasontziei zein neurritan eragiten dien;

f) 6. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako neurrien eraginkortasun eza.

3. 12. artikuluko 3. paragrafoan jasota dagoen arautze-prozeduraren arabera, Batzordeak, bere kabuz edo estatu kide batek hala eskatuta hartuko du erakunde bati onespena kentzeko erabakia, onetsiriko erakundeari bere oharrak aurkezteko aukera eman ondoren.

8. artikulua

1. Batzordeak eta onespena eskatu duen estatu kideak aldizka eta gutxienez bi urtez behin ebaluatuko dituzte onetsiriko erakundeak, Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak eta I. eranskinean xedatutako gutxieneko irizpideak betetzen dituztela egiaztatzeko. Onetsiriko erakundeen ikuskapena egiterakoan Erregelamendu honen aplikazio-eremuaren baitako jarduerak soilik hartuko dira kontuan.

2. Ikuskatuko dituen onetsiriko erakundeak hautatzerakoan, Batzordeak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: onetsiriko erakundeak segurtasunerako eta kutsaduraren prebentziorako gauzatzen dituen jarduerak, istripuen espedienteak, eta, 2009/15/EE Zuzentarauko 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatu kideek egindako txostenak.

3. Onetsiriko erakundearen jardueraren ikuskapena egiteko ebaluazioan, aukera izango da onetsiriko erakundeen eskualdeetako egoitzak bisitatzeko, bai eta erabiltzen diren itsasontziak zein eraikitzen ari direnak ikuskatzeko. Kasu horretan, egoki irudituz gero, Batzordeak eskualdeko sukurtsala dagoen tokiko estatu kideari jakinaraziko dio. Batzordeak ebaluazioaren emaitzak biltzen dituen txostena aurkeztuko die estatu kideei.

4. Onetsiriko erakundeek urtero jakinaraziko dizkiete beren kalitate-sistemaren kudeaketaren ikuskapenen emaitzak 12. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den Komiteari.

9. artikulua

1. Onetsiriko erakundeek bermatuko dute Batzordeak aukera duela 8. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den ebaluazioa egiteko beharrezko duen informazioa eskuratzeko. Ezingo da informazioa eskuratzeko eragozten duten kontratuzko klausularik ezarri.

2. Onetsiriko erakundeek bermatuko dute ontzien jabeek edo operadoreei derrigorrezko ziurtagiriak edo sailkapen-ziurtagiriak emateko egiten dieten kontratuetan baldintza moduan jartzen dela Batzordeko ikuskatzaileei ezingo zaiela ontzietara sartzeko oztoporik jarri, 8. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoa betetzeko.

10. artikulua

1. Onetsiriko erakundeek elkarri kontsulta egingo diote aldian behin, arauak, prozedurak eta haien aplikazioa bateratu daitezzen, eta baliokideak izaten jarrai dezaten. Onetsiriko erakundeek lankidetzan jardungo dute nazioarteko hitzarmenen interpretazio bateratua egin ahal izateko, nahiz eta kontuan izan behar diren banderako estatuen eskumenak ere. Hala dagokion kasuetan,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

onetsiriko erakundeek, arau baliokideetan oinarrituta, materialak, tresnak eta osagaiak sailkatzeko ziurtagiriak elkarri aitortzeko teknikak eta prozedurak adostuko dituzte, oinarritzat arau zorrotzenak eta zehatzenak hartuz.

Segurtasun-arrazoi larriak tarteko elkar aitortzeko adostasunik lortzen ez bada, onetsiriko erakundeek argitasunez azaldu beharko dituzte arrazoi horiek.

Ikuskapen baten bitartez edo bestelako bitartekoak erabiliz, onetsiriko erakunde batek materialen bat, tresnaren bat edo osagaien bat bere ziurtagiriarekin bat ez datorrela ikusiz gero, uko egin diezaike material, tresna edo osagai hori ontzian jartzeko baimena emateari. Onetsiriko erakundeak berehala emango die bere erabakiaren berri gainerako erakunde onetsiei, eta zergatik ez duen onartu azalduko du.

Batzordearen 1996ko abenduaren 20ko 96/98/EE Zuzentarauan ⁽¹⁾, itsasoko lan-tresnei buruzkoan ezarritakoaren arabera, onetsiriko erakundeek onetsi egingo dituzte lemaren gupilaren irudia duten itsas tresnen ziurtagiriak.

Era berean, onetsiriko erakundeek, aldizkako txostenen bitartez, arau horietan eta material, tresnen eta osagaien ziurtapenen elkarren onespenean egindako funtsezko aurrerapenen berri emango diete Batzordeari eta estatu kideei.

2. 2014ko ekainaren 17an, Batzordeak txosten bat aurkeztu beharko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txosten hori arauen eta prozeduren bateratzeari eta materialen, tresnen eta osagaien ziurtagiriaren elkarren onespenera buruzko ikerketa independente batean oinarritutakoa izango da.

3. Bere klaseko itsasontzi bat bada, onetsiriko erakundeak portua zuzentzen duen estatuko kontrol-administrazioekin lankidetzan jardun beharko du, akatsak zuzendu ahal izateko edo jakinarazitako bestelako edozein desberdintasuni aurre egiteko.

4. Onetsiriko erakundeek sailkatutako ontziei, klase-transferentzia, -aldaketa, -etete eta -kentzei buruzko informazio egokia emango diete, bai 2009/15/EE Zuzentzaruko 3. artikuluan aurreikusitako baimenetako edozein eman duten estatu kideen administrazioari, bai eta Batzordeari ere, ontzien bandera edozein izanda ere.

Onetsiriko erakundeek eman beharreko informazioa, sailkatutako ontziei, klase-transferentzia, -aldaketa, -etete eta -kentzei buruzkoa, eta, ontziaren bandera edozein izanda ere, beren erregistroetako itsasontzietan egiteke dauden ikuskapenei, bete gabeko gomendioei, klase-baldintzei, ustiaketa-baldintzei eta funtzionamendu-murrizketei buruzkoa, elektronikoki jakinarazi behar diote estatu kideek erabiltzen duten datu-base komunari (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko apirilaren 23ko 2009/16/EE Zuzentzara ⁽²⁾, portua zuzentzen duen estatuak ontziak kontrolatzeari buruzkoa, aplikatzeko sortutakoa da). Horrez gain, onetsiriko erakundearen datu-basean ere erregistratu behar da, eta, betiere, informazio hori erregistratzea eragin duen gertakaria jazo eta hurrengo 72 orduetan zehar jakinarazi behar da. Informazio hori, atzeratuta ez dauden aholkuei eta klase-baldintzei

dagokiena izan ezik, onetsiriko erakundeen webguneetan argitaratuko da.

5. Ontzien bandera edozein izanda ere, onetsiriko erakundeek ez diete derrigorrezko ziurtagiririk emango sailkapenetik kendutako itsasontziei edo, segurtasun-arrazoiak tarteko, klasez aldatu direnei, aldez aurretik, arrazoizko epe baten baitan, banderako estatuari ikuskapen oso bat beharrezkoa den edo ez esateko aukerarik eman gabe.

6. Onetsiriko erakunde batetik besterako klase-transferentziaren bat gertatuz gero, erakunde lagatzaileak, justifikatu gabeko atzerapenik gabe eman beharko dio erakunde hartzaileari itsasontziari buruzko informazio guztia, eta, batez ere, gai hauei buruzkoa:

- egiteke dagoen edozein ikuskapen;
- bete gabeko edozein gomendio edo klase-baldintza;
- ontziari ezarritako funtzionamendu-baldintzak, eta
- ontziari ezarritako funtzionamendu-murrizketak.

Erakunde hartzaileak itsasontziari ziurtagiri berriak eman ahal izateko, egiteke dauden ikuskapen guztiak egin, bete gabeko gomendioak bete eta itsasontziarentzat aldez aurretik ezarritako klase-baldintzak bete beharko ditu, erakunde lagatzaileak emandako espezifikazioen arabera.

Ziurtagiriak eman baino lehen, erakunde hartzaileak ziurtagiriak zein egunetan eman dituen jakinarazi behar dio erakunde lagatzaileari, ziurtagiri horiek zein egunetan eta tokitan egin diren egiaztatu behar dio, eta egiteke dauden ikuskapenak, gomendioak eta klase-baldintzak betetzeko hartu diren neurriak zein diren jakinarazi behar dio.

Neurri bereziak hartzea eskatzen duten klase-transferentziarako, guztiak jarraitu beharreko baldintzak ezarri eta aplikatuko dituzte onetsiriko erakundeek. Kasu berezizat hartzen dira, besteak beste, 15 urte edo hortik gora dituzten itsasontzien transferentziak, eta onetsi gabeko erakunde batetik onetsiriko erakunde batera egindakoak.

Onetsiriko erakundeek lankidetzan jardungo dute paragrafo honetan ezarritakoa behar bezala betetzeko.

11. artikulua

1. Onetsiriko erakundeek, beranduena ere 2011ko ekainaren 17an, Kalitatea Egiaztatu eta Ebaluatzeako Erakunde independente bat sortuko dute, eta irauarazteko baliabideak emango dizkiete. Erakunde horrek nazioartean aplikatu daitezkeen kalitate-arauak bete behar ditu, eta bertan ontzien sektoreko profesionalek parte hartu ahal izango dute aholkulari modura.

¹ L 46 EO, 1997.2.17, 25. or.

² Ikus Egunkari Ofizial honetako 57. orrialdea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Hauek dira Kalitatea Egiatzatu eta Ebaluatzeko Erakundeak izango dituen egitekoak:

- a) onetsiriko erakundeen kalitate-kudeaketaren sistemen aldizkako ebaluazioak egitea, ISO 9001 kalitate-arauaren irizpideak betez.
- b) Onetsiriko erakundeen kalitate-kudeaketaren sistemak egiaztatzea, baita 3. artikulua araberaren onarpena eskatu dutenena ere.
- c) nazioarteko onespina duten kalitate-kudeaketarako arauen interpretazioak egitea; batez ere, onetsiriko erakundeen eta haien betebeharren ondorioz sor daitezkeen berezitasunetara egokitzeko.
- d) onetsiriko erakundeen barne-kontrolerako prozedurak eta mekanismoak hobetzeko norbanako zein taldeko gomendioak onartzea.

3. Kalitatea Egiatzatu eta Ebaluatzeko Erakundeak onetsiriko erakundeekiko independentziaz jarduteko beharrezkoak diren eskumenak eta barne-erregimena izango ditu. Horrez gain, bere egitekoa modu eraginkorrean gauzatzeko beharrezko bitartekoak izango ditu, arau profesional zorrotzenak betez eta egiteko hori duten pertsonen independentzia babestuz. Kalitatea Egiatzatu eta Ebaluatzeko Erakundeak bere lanerako metodoak eta barne-araudia ezarriko ditu.

4. Kalitatea Egiatzatu eta Ebaluatzeko Erakundeak kalitatea ebaluatzeko kanpoko erakundeei laguntza eskatu ahal izango die.

5. Kalitatea Egiatzatu eta Ebaluatzeko Erakundeak urteko lan-planari eta bere ondorioei eta gomendioei buruzko informazioa — batez ere, segurtasuna arriskuan jarri duten egoerei buruzkoa— emango die alderdi interesatuei, banderako estatuei eta Batzordeari, besteak beste.

6. Batzordeak aldizka ebaluatuko du Kalitatea Egiatzatu eta Ebaluatzeko Erakundea.

7. Batzordeak estatu kideei aurkeztuko dizkiete ebaluazioaren emaitzak eta horren ondoriozko ekintzak.

12. artikulua

1. Batzordeak Itsas Segurtasunaren eta Itsasontziek eragindako Kutsaduraren Prebentziorako Komitearen laguntza izango du. Komite hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2099/2002 (EE) Erregelamendua⁽¹⁾ ezarritakoa betez sortu da.

¹ L 324 EO, 2002.11.29, 1. or.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 3. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

4. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

13. artikulua

1. Erregelamendu hau bere aplikazio-eremua handitu gabe alda daiteke, I. eranskinean ezarritako gutxieneko irizpideak eguneratzeko. Horretarako, IMO horri buruz hartutako erabakiak hartuko dira kontuan, bereziki.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak 12. artikulua 4. paragrafoan jasota dagoen kontrol-dun arautze-prozedura betez hartuko dira.

2. Erregelamendu honetako 2. artikuluko b) idatz-zatian adierazitako nazioarteko hitzarmenen zuzenketak Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo utzi ahal izango dira, 2099/2002 (CE) Erregelamenduko 5. artikulua aplikatuz.

14. artikulua

1. Batzordeak hauek onartu eta argitaratuko ditu:

a) Arauen eta prozeduren eraginkortasuna neurtzeko irizpideak eta, segurtasunari eta sailkatutako itsasontziek sortutako kutsadurari dagokionez, onetsiriko erakundeek gauzatzen dituzten jarduerak. Horretako, kontuan izango ditu, bereziki, Parisko Akordioaren Memorandumak, portuko estatuaren kontrolari buruzkoak, landutako datuak edo antzeko sistemen bidez egindakoak.

b) Zer irizpide izan behar diren kontuan jarduera bat segurtasunerako edo ingurumenerako mehatxu onartezin bihurtzeko. Horietan kontuan hartu ahal izango dituzte erakunde txikietan edo oso erakunde espezializatuetan eragina duten egoera zehatzak.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (erregelamendua osatu ere egin dezakete) 12. artikuluko 4. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

2. 6. artikuluari eta, hala dagokionean, 7. artikuluari jarraiki, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko eta berau osatzeko hartutako neurriak 12. artikulua 4. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez ezarri behar dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. I. eranskinean ezarritako gutxieneko irizpideak berehala aplikatzekoak diren arren, Batzordeak, 12. artikuluko 3. paragrafoko arautze-prozedurari jarraiki, horiek interpretatzeko arauak onar ditzake, eta erabaki dezake helburuak ezartzea I. Eranskineko A ataleko 3. puntuko gutxieneko irizpide orokorretarako.

15. artikulua

1. Erregelamendu hau indarrean jarri baino lehen 94/57/EE Zuzentarauaren arabera onespina jaso duten erakundeek, onespina edukitzen jarraituko dute, baina 2. paragrafoan xedaturikoa bete beharko da.

2. 5. eta 7. artikuluetan ezarritakoa betearazteari uko egin gabe, 2010eko ekainaren 17a baino lehen, Batzordeak 94/57/EE Zuzentzarauko 4. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoari jarraiki emandako aitorten mugatu guztiak berrikusiko ditu, erabakitzeko, 12. artikuluko 3. paragrafoan jasota dagoen arautze-prozedurari jarraiki, mugaketa horiek kendu egin behar diren edo horien ordeez beste batzuk jarri behar diren. Mugaketek indarrean jarraituko dute Batzordeak erabaki bat hartu arte.

16. artikulua

8. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den ebaluazioan zehar, Batzordeak egiaztatuko du onspenaren titularra benetan dela

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean,
Lehendakaria
H.-G. PÖTTERING

Erregelamendu honetako xedapenak aplikatzen zaizkion erakunde juridikoa, erakunde guztiaren barnean. Horrela ez bada, Batzordeak onespina aldatzen duen erabakia hartuko du.

Batzordeak onespina aldatzen badu, estatu kideek aldaketa horretara egokitu beharko dituzte erakunde onetsiarekin dituzten akordioak.

17. artikulua

Batzordeak, bi urtean behin Erregelamendu honen aplikazioaren berri emango die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

18. artikulua

Erkidegoko zuzenbidean eta barne-zuzenbidean 94/57/EE Zuzentzaruari egindako erreferentziak erregelamendu honi egindakotzat hartuko dira, II. eranskinean jasotako korrespondentzia-taulari jarraiki.

19. artikulua

Erregelamendu hau indarrean sartuko da *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik hogeiei egunera.

Kontseiluaren izenean,
Lehendakaria
P. NECAS

ANEXO I

CRITERIOS MÍNIMOS PARA LAS ORGANIZACIONES PARA OBTENER O MANTENER EL RECONOCIMIENTO COMUNITARIO**(a que se refiere el artículo 3)**

A. CRITERIOS GENERALES MÍNIMOS

1. Las organizaciones reconocidas deben tener personalidad jurídica en el Estado en que estén establecidas. Las cuentas de estas organizaciones estarán certificadas por auditores independientes.
2. La organización reconocida deberá acreditar una amplia experiencia en la evaluación de los proyectos y la construcción de buques mercantes.
3. La organización reconocida deberá contar en todo momento con una importante plantilla de gestión, técnica, de apoyo y de investigación acorde con las dimensiones de la flota de su clase, con su composición y con la implicación de la organización en las tareas de construcción y reconversión de buques. La organización reconocida deberá estar en condiciones de asignar a cada lugar de trabajo, cuando y como se necesite, los medios y el personal acordes con las tareas que deban efectuarse, de acuerdo con los criterios generales mínimos en virtud de los apartados 6 y 7 y con los criterios mínimos específicos de la parte B.
4. La organización reconocida deberá tener y aplicar una serie de normas y procedimientos completos propios, o la capacidad demostrada para ello, para el diseño, la construcción y el control periódico de buques mercantes, que tendrán la categoría de normas reconocidas internacionalmente. Estas normas y procedimientos deberán publicarse, actualizarse y mejorarse continuamente mediante programas de investigación y desarrollo.
5. La organización reconocida deberá publicar anualmente su registro de buques o tenerlo disponible al público en una base de datos electrónica.
6. La organización reconocida no deberá estar controlada por propietarios o constructores de buques ni por otras personas o entidades que se dediquen comercialmente a la construcción, al equipamiento, a la reparación o a la explotación de buques. Los ingresos de la organización reconocida no dependerán esencialmente de una sola empresa comercial. La organización reconocida no llevará a cabo sus tareas reglamentarias o de clasificación si es a su vez propietaria o explotadora o tiene vínculos mercantiles, personales o familiares con el propietario o el explotador. Esta incompatibilidad se aplicará igualmente a los inspectores que emplee la organización reconocida.
7. La organización reconocida deberá operar de conformidad con las disposiciones establecidas en el anexo de la Resolución A.789(19) de la OMI sobre «Especificaciones relativas a las funciones de reconocimiento y certificación de las organizaciones reconocidas que actúen en nombre de la Administración», en la medida en que sean aplicables en el ámbito del presente Reglamento.

B. CRITERIOS ESPECÍFICOS MÍNIMOS

1. La organización reconocida deberá proporcionar una cobertura mundial, con sus propios peritos con dedicación exclusiva, o, en casos excepcionales y debidamente justificados, recurriendo a peritos con dedicación exclusiva de otras organizaciones reconocidas.
2. La organización reconocida deberá regirse por un código ético.
3. La organización reconocida deberá estar gestionada y administrada de forma que garantice la confidencialidad de la información exigida por la administración.
4. La organización reconocida deberá facilitar la información pertinente a la administración, a la Comisión y a las partes interesadas.

5. La organización reconocida, así como sus peritos y su personal técnico, efectuarán sus labores sin perjuicio alguno de los derechos de propiedad intelectual de astilleros, suministradores de equipos y propietarios de buques, incluidos las patentes, licencias, conocimientos técnicos o cualquier tipo de conocimiento cuyo uso esté jurídicamente protegido a nivel internacional, comunitario o nacional; en ningún caso, y sin perjuicio de las competencias de evaluación de los Estados miembros y de la Comisión y, en particular, conforme a lo dispuesto en el artículo 9, la organización reconocida o los peritos y el personal técnico empleados por la misma, podrán transmitir o divulgar datos comercialmente relevantes obtenidos en el marco de sus actividades de inspección, verificación y supervisión de nuevas construcciones y reparaciones de buques.
6. La dirección de la organización reconocida deberá definir y documentar sus políticas y objetivos y su compromiso en materia de calidad, y garantizar que esta política es entendida, aplicada y mantenida en todos los niveles de la organización reconocida. La política de la organización reconocida deberá referirse a los objetivos e indicadores en materia de seguridad y prevención de la contaminación.
7. La organización reconocida deberá garantizar que:
 - a) sus normas y procedimientos se elaboran y mantienen de forma sistemática;
 - b) se respetan normas y procedimientos y se establece un sistema interno para medir la calidad del servicio en relación con dichas normas y procedimientos;
 - c) se cumplen los requisitos de la función oficial para la que está autorizada la organización reconocida y se establece un sistema interno para medir la calidad del servicio en relación con el cumplimiento de los convenios internacionales;
 - d) se definen y documentan las responsabilidades, competencias e interrelaciones del personal cuyo trabajo afecte a la calidad de los servicios de la organización reconocida;
 - e) todo el trabajo se realiza en condiciones controladas;
 - f) existe un sistema de supervisión que vigila las actuaciones y las labores efectuadas por los inspectores y por el personal técnico y administrativo empleado por la organización reconocida;
 - g) los inspectores tendrán un conocimiento extenso del tipo de nave en la que realizan su trabajo, en función del peritaje concreto que deba efectuarse y de los correspondientes requisitos aplicables;
 - h) se aplica un sistema de cualificación de los inspectores y una actualización permanente de sus conocimientos;
 - i) se llevan registros que prueben el cumplimiento de las normas exigidas en los elementos cubiertos por los servicios realizados, así como el funcionamiento eficaz del sistema de calidad;
 - j) se mantiene en todos los lugares de trabajo un sistema global de auditorías internas, planificadas y documentadas, de las actividades relacionadas con la calidad;
 - k) las inspecciones y reconocimientos obligatorios requeridos por el sistema armonizado de reconocimiento y certificación para los cuales la organización reconocida esté autorizada, se llevan a cabo de conformidad con la disposición establecida en el anexo y apéndice a la Resolución de la OMI A.948(23) «Directrices para inspecciones conforme al sistema armonizado de inspecciones y certificación»;
 - l) se establecen líneas claras y directas de responsabilidad y control entre las oficinas centrales y regionales de la organización reconocida y entre las organizaciones reconocidas y sus inspectores.

8. La organización reconocida deberá haber desarrollado, aplicado y mantenido un sistema interno eficaz de calidad basado en las secciones pertinentes de las normas de calidad internacionalmente reconocidas y de conformidad con las normas EN ISO/IEC 17020:2004 (organismos de inspección) y EN ISO 9001:2000 (sistemas de gestión de la calidad, requisitos), interpretadas y certificadas por la Entidad de Certificación y Evaluación de la Calidad mencionada en el artículo 11, apartado 1.
 9. Las normas y procedimientos de la organización reconocida deberán aplicarse de tal modo que esta, según su juicio y a partir de sus conocimientos propios y directos, pueda siempre hacer una declaración fiable y objetiva respecto a la seguridad de un buque mediante certificados de clasificación a partir de los cuales puedan expedirse los correspondientes certificados obligatorios.
 10. La organización reconocida deberá disponer de los medios necesarios para evaluar, empleando a personal profesional cualificado y de conformidad con las disposiciones del anexo de la Resolución A.913(22) de la OMI sobre directrices de aplicación por las administraciones del Código internacional de gestión de la seguridad (GSI), la aplicación y el mantenimiento del sistema de gestión de la seguridad, tanto en la costa como a bordo de los buques, que deba cubrir la certificación.
 11. La organización reconocida deberá permitir la participación en el desarrollo de sus normas y procedimientos de representantes de la administración y otras partes interesadas.
-

ANEXO II

Tabla de correspondencias

Directiva 94/57/CE	Directiva 2009/15/CE	Presente Reglamento
Artículo 1	Artículo 1	Artículo 1
Artículo 2, letra a)	Artículo 2, letra a)	Artículo 2, letra a)
Artículo 2, letra b)	Artículo 2, letra b)	–
Artículo 2, letra c)	Artículo 2, letra c)	–
Artículo 2, letra d)	Artículo 2, letra d)	Artículo 2, letra b)
Artículo 2, letra e)	Artículo 2, letra e)	Artículo 2, letra c)
–	Artículo 2, letra f)	Artículo 2, letra d)
Artículo 2, letra f)	Artículo 2, letra g)	Artículo 2, letra e)
Artículo 2, letra g)	Artículo 2, letra h)	Artículo 2, letra f)
Artículo 2, letra h)	Artículo 2, letra i)	Artículo 2, letra g)
Artículo 2, letra i)	Artículo 2, letra k)	Artículo 2, letra i)
–	Artículo 2, letra j)	Artículo 2, letra h)
Artículo 2, letra j)	Artículo 2, letra l)	–
Artículo 2, letra k)	–	Artículo 2, letra j)
Artículo 3	Artículo 3	–
Artículo 4, apartado 1, primera frase	–	Artículo 3, apartado 1
Artículo 4, apartado 1, segunda frase	–	Artículo 3, apartado 2
Artículo 4, apartado 1, tercera frase	–	–
Artículo 4, apartado 1, cuarta frase	–	Artículo 4, apartado 1
–	–	Artículo 3, apartado 3
–	–	Artículo 4, apartados 2, 3 y 4
–	–	Artículo 5
–	–	Artículo 6
–	–	Artículo 7
Artículo 5, apartado 1	Artículo 4, apartado 1	–
Artículo 5, apartado 3	Artículo 4, apartado 2	–
Artículo 6, apartados 1, 2, 3 y 4	Artículo 5, apartados 1, 2, 3 y 4	–
Artículo 6, apartado 5	–	–
Artículo 7	Artículo 6	Artículo 12
Artículo 8, apartado 1, primer guión	Artículo 7, apartado 1, párrafo primero, letra a)	–
Artículo 8, apartado 1, segundo guión	–	Artículo 13, apartado 1
Artículo 8, apartado 1, tercer guión	Artículo 7, apartado 1, párrafo primero, letra b)	–
–	Artículo 7, apartado 1, párrafo segundo	Artículo 13, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 8, apartado 2	Artículo 7, apartado 2	–
Artículo 8, apartado 2, párrafo segundo	–	Artículo 13, apartado 2

Directiva 94/57/CE	Directiva 2009/15/CE	Presente Reglamento
Artículo 9, apartado 1	–	–
Artículo 9, apartado 2	–	–
Artículo 10, apartado 1, frase introductoria	Artículo 8	–
Artículo 10, apartado 1, letras a), b) y c), y apartados 2, 3 y 4	–	–
Artículo 11, apartados 1 y 2	Artículo 9, apartados 1 y 2	–
Artículo 11, apartados 3 y 4	–	Artículo 8, apartados 1 y 2
Artículo 12	Artículo 10	–
Artículo 13	–	–
Artículo 14	Artículo 11, apartados 1 y 2	–
–	Artículo 11, apartado 3	–
–	Artículo 12	–
–	–	Artículo 9
Artículo 15, apartado 1	–	–
–	–	Artículo 10, apartados 1 y 2
Artículo 15, apartado 2	–	Artículo 10, apartado 3
Artículo 15, apartado 3	–	Artículo 10, apartado 4
Artículo 15, apartado 4	–	Artículo 10, apartado 5
Artículo 15, apartado 5	–	Artículo 10, apartado 6, párrafos primero, segundo, tercero y quinto
–	–	Artículo 10, apartado 6, párrafo cuarto
Artículo 16	Artículo 13	–
Artículo 17	Artículo 16	–
–	Artículo 14	–
–	Artículo 15	–
–	–	Artículo 11
–	–	Artículo 14
–	–	Artículo 15
–	–	Artículo 16
–	–	Artículo 17
–	–	Artículo 18
–	–	Artículo 19
Anexo	–	Anexo I
–	Anexo I	–
–	Anexo II	Anexo II